

*Pako Aristi*



# KCAPPO

## TEMPO DI TREMOLO

[poltsiko.e](http://poltsiko.e)



**Pako Aristi** (Urrestilla, 1963). Kazetaritzan lizentziatua da. Hogeita bat urterekin atera zuen bere lehen nobela, *Kcappo* (1985), eta geroztik idaztera dedikatu da, kazetaritza baztertu gabe. Genero asko landu ditu. Narratiban beste lau nobelaren egilea da, *Irene*, *Krisalida*, *Urregilearen orduak* (Espainiako Kritika saria, 1998) eta *Rosa itzuli da* (2018). *Auto-stopeko ipuinak* ere idatzi zuen (1994). Haur literaturan ere oparo jardun du.

2004an, *Gauza txikien liburua* argitaratu zuen, eta *Note book* artikulua bilduma 2005ean. Bi saiakera ere idatzi ditu: *Indepentziaren paperak* (2012) eta *Euskararen isobarak* (2014).

Aristirenak dira halaber poesia-bilduma hauek: *Castletown* (1996), *Oberako hitzak* (1998), *Libreta horiko poemak* (2003), *Ura-ri ostutako poemak* (2014), *Arrotz eta eder* (2016) eta *Maitatu zure egunak* (2018).

PAKO ARISTI

KCAPPO

Tempo di tremolo

EDIZIO ZUZENDU ETA EGUNERATUA

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*1. argitalpena: 1985ean.*

*3. argitalpeneko 1. inprimatzea: 2020ko martxoan.*

Azala eta liburuaren diseinua:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-313-8

L.G.: D 124-2020

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

*Iñaki Azkeneri, goizeko bederatzietako  
klase baitan logura kentzeko euskal  
literaturara zaletu gintuelako.*

# I

Sei ahizpetan gazteena eta xarmantena izan zen bere ama, eta putetxeetan horditurik apustuez hitz egiten zuen gizon txanbergo batekin ezkondu zen. Ahizpa zaharrenak, zerbitzatzen zuen tabernako nagusiarekin egin beharreko guztiak kontsumatu zituen lanik gabe gelditzeko beldurrez, eta, horregatik, familiaren erdeinu errukigabea pairatu zuen, Jainkoaren bakean babestuz, lekaime sartu arte igaro zituen zazpi urtean.

Ahizpa gazteena begiz jota zeukan gizon hark hiru urteko gau guztiak behar izan zituen putetxeko jokoan tabernak balio zuen adina biltzeko, eta, ahizpa zaharrenaren derrigorrezko ibilerak jakinda, ez zitzaion zaila gertatu tabernariaren borondatea bereganatzea. Jokoaren irabazia ogibide eta emakumea etxeratzeko dote ukazina bihurtu zitzaion. Aurki idatzi zion gutuna horrelakorik espero ez zuen ahizpa gazteenari, elkarren eta seme posibleen mantenua irabazten zuela eta ezkontza eskatuz, bazuela eta hego haizeak lurtean pausatzeko sasoa. Aitak mantsoagatik esan zion alaba kutunenak gutuna erakutsi zionean:

–Bi etxe badira mundu honetan goserik ezagutzen ez dutenak, taberna eta eliza.

Ezteietako otorduan, jadanik andre bihurtzen zuen ezkontza aldaezinaren ondoren, sentitu zuen noizbait damutuko ote zen susmoa, zapotzar bat jaurti baitzuten kaletik ume koskor batzuek. Senarrak mahaira jaso, zigarro piztua ahoan sartu eta irentsiriko keaz zapoa leherrarazteko alukeria egin zuen, eta gonbidaturiko zenbait gonbitalarrika jarri.

Gauerdian, artean zapotzarraren pasadizoa ahaztu ezinik, begiak itxi behar izan zituen, gainera zetorkionaren izerdi, hats eta urduritasunaren nazka zapotzarrarenarekin nahastu ez zekion, eta gaztetako maitasunari buruzko berriketa haietara limurtu zen, gizonak egindakoaren mina lasaitu eta loak hartu zuen arte.

Zortzi hilabete eta hogeita hiru egunera, arkakusoaren hozkada iruditu zitzaion gizonak egindakoa, erditu ezinik ziharduen umeak aterarazten zizkion orroen aldean, hale-re ez zuen sabela urratu eta alu aldea txikitzen ari zitzaion haren kontra gorroto izpirik sentitzen, estreinako gau mingarri hartan senarrarekiko sentitu zuen bezala, bizitza osoan egin zezakeen gauzarik probetxugarrientzat hartzen baitzuen sortzen ari zena.

Zapoak neguko lozorroa inguruneetako baratzetan igaro ondorengo bitarte horretan jaio ziren kumeak bizkarrarean harturik, bandaka, erre kara itzultzen diren maiatzeko gau hartan jaio zen Ernesto Guardiola, baina amak erditzean harrapatu zuen gaitzak ez zion bizitzen utzi semeak bere ama kutuna ezagutu eta oroitzapenen batzuk gordetzeko adina urte. Ernestok bost urte zituela hil zen.

Behin tabernako mirabeak kalera atera eta txistua joz itzuli zenekoa zen haurraren estreinako bost urte haiek

inguratzen zituen ilunpe beltzetik erreskatatu zuen amaren oroitzapen bakarra. Aitak errietan eraso zion, hizketan baino lehenago musikan ikastea ez zitzaiolako iruditzen herrixka hartan bizitza atera behar zuen ume batentzat hazteko modurik onena, baina amak zorrotz babestu zuen aitari ez bezala hainbeste barruko min eman zion semea:

–Tonu gutxiago dakizkitez zapoek eta gau osoa kantuan dihardute. Gure baratzean dabilzanetako bat bera ere akabatzeke adorerik ez baduzu, utziozu semeari ere nahi adina kantatzen.

Emakumeak nazkagarriak zirela oihukatuz aldendu zen aita, eta amak, bi astera hil bazen ere, semearengan aitarekiko gorroto printzak piztu zituen lasaitasunarekin itxi zituen begiak per secula seculorum, amen.

Horrekin batera beste gizon bat lurperatzen ari ziren alboko herrian, eta akolitoek elkarri begiratu zioten, bi metrora iristeko hain gutxi falta izan zitzaion gizon sorbalda zabalxka hura gordetzen zuen kaxak lurra jo zuenean. Kanposantura bideko lokatza artean igotzen ausartu ziren pertsona bakarren artean zegoen emaztea, lau urteko semea-ri eskutik helduta, lur azpitik ere, ezkontza gauean bere emaztea birjina ez zela jakinda, hain bihotz onez hartu zuenean, bota zion arrazoia botako balio bezala:

–Birjina ez izatea ez dun gaitza, baina emazte batek bere gizonarekin txortan egin ondoren inoiz egin behar ez dituen bi gauza esango dizkinat: gelako argia piztu edo ohetik jaiki eta gizona hozten utzi.

Baina bizitzan zoriontsu sentitu zen urte bakarrak aurreko gauean amaitu zitzaizkion, gizona perretxiko janean etiketarik gabeko anisarekin seko txipilindu zenean, etxaurreko kanala pasatzean hankek ez baitzuten buruaren agindua



jarraitu, muturrez aurrera erori, eta putzuaren zoru lokaztua jo zuen. Goizean esnezaleak lehorreratu zuenean, ez-kailuek haren begiak erdi janik zeuzkaten eta suge bat irris-tatu zitzaion aho zulotik. Afariko perretxikoak ontzat jo zituzten herrian, baina, apika, ustekabean nahasiriko txarren bat jan ote zuen argudiatu zuten afaltiarrek lagunaren putzuratze tristem argitzearren, heriotza posible guztien artean mozkortuta hiltzea zelako fortunarik barregarriena eta mesprezagarriena, apaizak tabernazalekeriaren aurka sine-tsarazi zuen beldur bakarra hori izan baitzen hogeituro urteko iganderoko sermoi luzeetan.

Gizona hiltzean emakumea ardoari eman zitzaion eta jadanik hondatua zuen zorionari gizonak utzitako ondasunen hondaketa erantsi zion, eta urte gutxiaren tartean galdu zituen bereak zituen hiru etxe, bi baso eta terreno solte mordoska bat, ardoaren memoria herratua baita. Umetxoa guztiaren testigu izan zen, eta hamar urte bete zituenean, astean bitan oheratzen zen mutilzahar ilun harekin utzi zuen ama, eta bera amak inoiz topatuko ez zuen baserri batean hasi zen morroi. Bataiatzean ipini zioten izena ere amari utzi zion, eta beste bat asmatu zuen bere buruarentzat: Santos Aldabalde.

Laster manifestatu zituen bertsolari dohainak alegrantzia baino buruhauste gehiago eman zion gazte denboran, elizarako joera utzi eta taberna barrundatzen hasi zenetik behintzat. Tiple hasi zen bederatzi urterekin latinezko Introito, Pange Lingua eta Lauda Sion luzeak abesten Jainkoaren hizkuntza zelakoan, eta apaizgorako bokazioa ere sentitu zuela uste izan zuen sasoi batean, kanpandorretik elizara enara bat sartu baitzen, hiru egunetan koru eta aldarreko kupuletako hautsak astintzen ibili ondoren, indarrez

peto lurra jo zuen, eta azkenean, tiple batek harrapatu zuen akabatzeko asmotan. Santosek besotik heldu zion eta, emango zion ezkerkadarekin, amak ere ez zuela ezagutuko enara soltatzeko ez bazuen, eta txoria emateko. Jainko imajinatu haren begi oneko zeinua sentitu zuen Santosek enara airera luzatu zuenean, eta munduan ere egoera txarrean zenbat pertsona egongo ote zen pentsatzen hasi zenean, apaiz egin nahi izan zuen desgraziatu haiek salbatzeko. Horregatik, elizkoiek zioten aprezioa gorroto bizi trukatu zen bertsozale-tasunak tabernara bultzatu zuenean.

Sasoi hartan ulertu zuen Ernestok gerripeko kontuak ez direla aireratu behar, aitik alu puta zikina esanda somantakoz josi zuenean. Ernesto akolitoa zen eta apaizari lagunduz baserrietara egiten zituzten ibilaldi horietako batean, abadea arbolara inguratu, sotana altxatu eta belaunerainoko galtzontzillo luzeen artetik txiza erreka bat egin zuen. Ernestok, bere inozan, ez zuen pentsatu ere egin apaizaren lepotik hanka puntetarainoko gorputz beltz hark txiki-lik edukiko zuenik, eta berebiziko harridurarekin begiratu zion makurtuta apaizari. Mirari hura ez zitzaion barruan kabitzen eta aitari kontatu zion. Honek alu puta zikina esan eta somantakoz josi zuen goitik beheraino.

Orduan jakin zuen gerripeko kontuak ez direla inoiz aireratu behar. Haurtzaroa gehienak bezalakoa izan zuen: maitasun urri eta gogorkeria handikoa. Eskolatu zenean, arratsalde bakarririk aprobetxatzen zuen, goizetan aitaren joko lagunek narrastu zuten taberna txukundu behar izaten zuen eta.

Tabernan beste edonon baino azkarrago ikasten da bizitzaren berri eta Ernesto apustu, tertulia eta mozkor artean hezi zen, eta hori nahikoa izan zitzaion tabernari betirako gorrotoa hartzeko.

Amaren ahizpa zaharrena, izeba, lehendik egiten zuen mirabe lanera itzuli zen tabernara, eta Ernestok askotan pentsatu zuen hura izan zela gerora gaineratuko zitzaion tragediaren hasiera, haren ibilera zaharrak ezagutuz aitak nozitu zuena jakina baitzen. Hamar urterekin konprobatu zuen aita lupua baino txarragoa zela. Tabernako mahai azpiko hondarrak jasotzen ari zen. Izeba mostradore atzean ari zen hasitako ardo botilak garrafoira husten. Aitak kortxo batzuen aitzakian gerria inguratu zion eta eskuetan zeuzkan botiletako kortxoak kentzen hasi zitzaizkion. Izebak ukabilarekin bultza egin zion jolasari jarraituz, baina aitaren esku dardartiak blusapetik titietaraino heldu zitzaizkionean konprentitu zuen zer jokotara zetorren gizona. Kentzen saiatu zen, baina gizonaren mingaina belarri bueltan sentitu zuenean gerripetik behera dena kizkurtu zitzaion. Izeba buelta ematen ikusi nuen aitaren ahoa bilatuz, honek blusa altxatzen zion bitartean. Garrafoia etzanda gelditu zen ardo guztia askara isurtzen zela, baina ez zioten kasurik egin. Izebaren eskuak mostradore azpian galtzen ziren aitak titiak batera eta bestera dantzatzen zizkiolarik. Nik ardoa erortzen ari da esaten nien, baina ez zuten begirik ez belarririk, eta pentsatu nuen amari ez zitzaiola gustatuko eta zeruan haserretu egingo zela. Mostradore atzean galdu ziren eta izebak ez, ez, ez esan arren ez zion aitari kontrarik egiten. Garrafoia jasotzera inguratu nintzenean, izebak bular alderaino jasoak zeuzkan gonak, aitak izter pareraino jaitsiak galtzak, beldurtu egin nintzen eta kalera irten nintzen aita eta izeba hil egin zirela oihukatuz. Jendea inguratu zen eta jardunean harrapatu zituzten.

Ondorio latzak ekarri zituen gertaerak familiarentzat. Aurreko tabernariari ez zitzaion zaila gertatu berari egin

zioten truko bera egitea Ernestoren aitari, eta honek taberna saldu behar izan zuen oso prezio merkean. Izeba zaharrena, berriz, egindako bekatuak sendatzearen, moja sartu zen gelditzen zitzaizkion urteetarako, eta abitu beltzak gorde zuen sabelean zekarren umea.

Izebak entzunak zituen istorio asko komentuetako lurpeko pasaguneetan aurkituak izan ziren ume jaioberrien gorpuen gainekoak, eta inori ezer esan gabe bere kasa erdituko zen umeaz, zazpikia izan eta komulgatzera zihoan batean hura munduratzeko hasi izan ez balitzaio. Lekaima guztien artean heldu eta oheratu zutenean egiaztatu zuen lagundu ziotenek zeregin horretan jakituria zabala zeukatela. Konortea galdu eta egun bat igaro zuen horrela. Esmatu zenean, alboan palankana bat eta mesanotxean baso bat ur besterik ez zituen aurkitu. Umerik ez ikustean, estutu eta deiadar-ka hasi zenez, superiora heldu zitzaion ohe barrenera eta bi hitzez argitu zion guztia:

–Konortea kendu dizugu egun batez, zure haurraren aztarrena betiko galdu dezazun. Horren berri Jainkoak bakar-rak daki.

## II

Ume bat basoan tiragoma bat egiteko egurkera aproposaren bila dabil eta bala gaizto batek hanka okertu zion gizona ikusi du. Jira eta etorritako bidezidorretik herioan galapaka eraso dio Sakamantekas delakoan, umeak harrapatzen dituen gizon hori alegia, tripan labana sartu eta begiak ateratzen dizkiena, baina ez du egurkera soltatu. Etxera heldu denean, aitak antzeman dio estutasuna, eta umeak Sakamantekas ikusi duela esan dionean, belarrietatik tiratuz, oilokumea, hanka egin, nik erakutsiko diat hire ama zenak ez bezala, Sakamantekas edo demonio berari ere aurre egiten, eta gisako petralkeriekin bidali du ohera, baina umea berehalaxe hartu du loak tiragomaren arkuera burupean sentituz. Goizean, bizikleta zaharraren bi kamara puska lotu ditu egurkeraren muturretan eta ahurra adinako zapata mingain bat erantsi du beste puntan ahalik eta harri handienak jaurtitzeko moduan. Martxoaren 25ean heldu da kukua eta enarek aurki izan behar dute kanpandorreko zintzurra harrotzen. Gero, inoiz ez bezala, gustura joan da eskolara. «O» hizkia oker ateratzen zaiola eta maisuak praktikatzeko agindua eman

dio. Umetxo aplikatua mahai, horma, komun, kartila eta bazter guztietan aritu da hizkia egiten. Maisuak gauza bat ikas-teko beste bat izorratzen duela eta, bi egun eman dizkio «O» guztiak ezabatzeko. Umea eskola baino txotxokeria handiagorik ba ote dagoen pentsatuz kaleratu da, eta udaberriko estreinako enarak ikustean saltoka kanpandorre ondoko zubiaren petrilean eseri da bere biziorik gogorrena asetzeko: tiragoma tenkatu eta baxuen pasatzen diren enarei harri koskorrak botatzea. Katuak, igelak, zakurrak, gizon buruzurien txapelak, andre zaharrak, erraz joko lituzkeen guztiak baztertzen ditu enarei tiratzeko, umea baita, eta ez daki jostorrazarekin arkakusoa zulatzea baino zailagoa dela holako abantada eta balantzak daramatzen hegaztia botatzea.

San Jose loreek arratsaldea horiztatu dute zero sabaia-  
ren urdinarekin eguraldia more bihurtuz. Umeak enaren he-  
gadari jarraitu dio denboraldi luze batean eta horrek petri-  
laren neurriak galarazi dizkio. Tiragomari indar gehiago  
emateko inpultsoan irristatu eta muturrez erreka harri ar-  
tera erori da. Zartatekoak eta aitaren zubi gainetiko me-  
kauenkak istant batez haurtzaroa utzi eta pentsatu du bi-  
zitzan datorkionaren berri erakusten dutela. Aitari tiragoman  
kabitzen zaion harririk handiena jaurtiki ondoren, ihesari  
eman dio. Muino batera igo da eta hortik aurrera urrutir-  
ratzen hasi zitzaion enarei tiraka igaro zuen arratsalde hura,  
dultzaineroaren etxetik urrutiratzean, pauso bakoitzean ha-  
ren musika ezarian isiltzen den bezala.

Taberna galdu ondoren, baserri batera joan ziren Ernes-  
to eta bere aita. Jolasa baino lehenago lana ezagutu zuen Er-  
nesto txikia garaiz hasi zen idiskotzen eta haragia gero eta  
bizikiago kilikatzen zitzaion sexu grinarekin. Bere grina ba-  
kartasunean ase zuen estreinakoan gorpuzteko likido guztiak

txikiletik atera behar zitzaizkiola sentitu zuen, baina ez zitzaion tanta bat bera ere azaldu eta ez zuen ulertu, lagun batek zioenez, txikila tinta zuriko boligrafo gorria zela. Apaiza eskolan eskuz bakarrean gorputzari gustu lohiak ematea nork bere burua eta arima zikintzea zela esaten hasi zitzairen garai hartan, eta Jainkoak dena ikusten zuela, eta indarrak galduko zituztela eta zakurrak pattarra edanda bezala geldituko zirela, txiki txikiak eta petralak, baina Ernestok tabernan entzuna zuenez, gizon guztiak edukitzen zuten noizbait eskua emaztetzat, mozkorturik ez zeudenean behinik behin, eta ez zuen beldur handirik izaten apaizak debekatzeko zizkien guztiak egiteko.

Santos txikia elizkoa zen artean, eta Jainkoaren haserrea neurtzeko era bat asmatu zuen. Udaberria zen eta marrubiak gorritzen hasiak ziren, eguzkia ateratzen zen egunetan batez ere. Txikila aireratzen zuen guztietan marrubitarra joaten zen, eta lauzpabost korda egiten zituenean Jainkoa ez zen haserretu, baina korda bat osatzera iristen ez bazen, haserre handiaren seinalea zen eta igandean konfesatu beharra izaten zuen. Konfesatzean, hori ez beste pikardia guztiak kontatzen zituen, eta gauza horietan sinesteari utzi zion arte ez zuen sexuarekin bakerik izan, eta gero ere ez askorik, zeren, lehen, nahigabea sabelpeko dardara ezkutatzean bazegoen, gero, hori kontentatu beharrean aurkitu zen. Limuria atera zitzaion estreinakoan, intxaur, ezkur edo gaztaina ustel usaina hartu zion. Zakilari eragiteko modua behiei esnea biltzen zien berbera zen, harik eta lagun batek, eskolan ikasi zuela esanaz, beste era bat erakutsi zion arte:

–Antzinakoek sua pizteko egur txotxa astintzen zitean ba eskuartearen batera eta bestera kea hasten zen arte. Txikila ere

makurtuta dagoenean astindu ezak horrela, eta, kea dario-  
la hasten denean, hiru gorabeheratan egina daukak.

Eskuak kanilan busti zituen badaezpada probatu zuene-  
an, eta baietz, gustua askoz ederrago egin zitzaion. Gaine-  
ra neskak biluzik imajinatze lanari imajina erreal bezain li-  
luragarriak erantsi zizkioten, herrian fortunatu zen auto  
frantses batetik emakumeen errebista bat ostu baitzuten, eta  
umeteria bueltan eseririk, hankartea simulatuz, arratsaldea  
emakume haiei begira eman zuten, meloia jaten, tenisean  
edo tea hartzen, baina beti gorririk ageri ziren emakume  
haien geografia ikasten. Afaltzeko gogorik gabe geratu zi-  
ren eta gauean emakume haiei meloiak saltzen edo tea zer-  
bitzatzen imajinatu zituzten euren buruak eta lotsagabee-  
nek atzetik joan eta titiak ukitzen zizkieten eta sabela ere  
bai eta sabelpeko bizarrak ere bai, azkenean, neskak zezen  
biltzen hasten ziren arte. Idiarena jotzeak ez zuen lehen-  
go patxada eta denbora luzea izan, plazerera lehenbailehen  
ailegatzeko grinak eta premiak bete baitzuen aurrerantze-  
an zeregin bakarti hura.

Udaberri hartan, apustu sonatu bat egin zuten bi herrik  
urte askotako haserreak bultzaturik. Igelenean, festetan, eli-  
za aurrean sartu ohi zuten lizar altua moztu eta errepara-  
zio botatzen batzuek besteei. Ordudanik ez zuten gupidarik iza-  
ten herritik pasatzerakoan egiten zizkieten irain, iseka eta  
nausetarako. Herri bateko umeek ohikoa den baino totel-  
ka gehiago egiten zuten hitz egiterakoan, eta bestean, ohi-  
koa den baino zahar txoro eta arin gehiago zegoen. Bate-  
ko zenbait umek kontsonanteak nahasten zituzten, enugon,  
xaiko, tonkuz esanez egunon, kaixo eta kontuz esan beha-  
rrean, beste batek toteltasuna zuzentzeko bokalez hasita-  
ko hitzak esaten zituen, gaiari erreparatu gabe, galdera arrunt



bati arkakusoak aizkora ahaztu edo erbiak erlojua ezkerrekoa edo ijitoak iaz ito erantzunez, horrela, bokalak praktikatuz ondo esatea lortu bazuen ere, ez zuen gehiago galdetutakoari erantzuten jakingo.

Besteko zaharrak beldurrak erotu zituen behin, tabernan hizketan, norbaitek ea inoiz ijito zaharrik ikusi al zuten galdetu zuenean, ezta pentsatu ere, zahartzen hasten direnean jan egiten baitituzte, eta hori entzun zuten zaharrek ez zuten lorik egin gauean, eta goiztirian, bat, kalean zebiltzan zakur eta katuei ura botatzen hasi zen hauen eskapadak algaraka jartzen zuelarik, besteak aspalditik zaintzen zuen kardantxiloari ardotan bustitako ogi mutur bat eman zion, honen jan, eta egun guztia kantuz zoratu beharrean igaro ondoren arrastirian hil egin zen, beste bat afari eske hasi zen hamaiketakoaren orduan, eta beste bat aspaldidanik sukaldeko hormako harri artean sei zilarrezko ogerlekorekin gorde zuen tupinaren bila hasi zen, harik eta denak saldu eta zazpi kriseilu erosi zituela semeak esan zion arte.

Apustua Gorputz bezperarako jarri zuten eta egun guztia iraungo zuen, proba bakoitzean bi herrietako pertsonak hartuko zutelarik parte. Goizean mendi bat igoko zuten bizikletan, batak eskurik gabe eta besteak atzeraka jarrita, eguerdian, kiloko txuleta kilo erdi patata frijiturekin zeinek azkarrago jan, bazkalondoan, nazkagarrien txanda, zeinek karakol gehiago jan bizi-bizirik, oskol eta guzti, arratsaldean, zeinek zerra batekin lau metroko enbor banari ebaki sakonagoa egin, eta iluntzean, azkena eta gogorrena, bi arerio mahaietan aurrez aurre jarri eta batak jateari eta besteak edateari eman behar zioten, batak oilasko edo koneju kiloa jaten zuen bitartean, besteak botila bat sagardo eta beste bat ardo edan behar zuelarik, proportzio horretan.

Motibo hori zela medio, Gorputz egun berean baino jende gehiago bildu zen bezperan, eta samaldaren herotsak kaletako horma hautseztatuei udaberriak ordokietara ekartzen duen kolorea margotzen zien. Iluntzean tabernari batek herrian berez edaten zena baino bost aldiz gehiago edan zela eta sei mila pertsona jo zituen herria bisitatu zutenak. Bizikletena eta txuletena pasatu ondoren, batak lau karakol jan zituen eta besteak, bigarreneako, bazkarikoak boteak zituen. Enborrean inork ez zuen metro bat pasatu eta azkenean erabakitzeotan gelditu ziren. Apustulariak azaltzerako, tabernan jendea estuturik zegoen. Emakumeak, normalki behin ilunduz gero tabernara ateratzen ez baziren ere, egun hartan apustuaren aitzakiaz tabernaratu egin ziren. Ernesto sukalderaino sartu zen, mahai gainetik ikusmirara hobea izatearren. Han, bere posturako batek bultza egin zion eta estutu batzuen ondoren bientzako nahiko tokia bazegoela eta espazioa banatu zuten. Artean ez zituzten hamalau urte. Jatekoa eta edatekoa mahairatzearekin hasi zen apustua zarata handirik gabe, luzea izango baitzen jarduna. Jatunak bi kilo garbitzerako, zurruteroak hiru sagardo eta bi botila ardo hustu zituen, eta baita begiak loratu eta okertu ere. Bi ordura egonaldi bat egin zutenean, inork pentsatu ez zuen kontu bat agertu zen, ea txiza eta kaka egitea libre zen ala ez. Jatunaren aldekoek ezetz zioten, baina zurruteroaren lagunek baietz, bestela lehertu egingo zela eta. Emakume batzuek baietz, ez zitezela hain piztiak izan, zorigaitzik ez zutela nahi eta baietz erabaki zen. Tabernariak mahaitik kendu zituen Ernesto eta albokoa botila ardo erdi hutsak lagatzeko, eta alboko mutikoak hondarrak botila batera botatzeko esan zion, muturra apuntatzen bazuen, eta botila bete zutenean txandaka edateari eman zioten, zeinek

trago luzeenak egin, tabernako apustuaz ahazturik. Ordu bietarako, jatunak saltsarik gabe eskatu zituen haragiak, eta zurruteroak ez zituen sagardoa eta ardoa bereizten. Hiru-retarako lerdea zeriola hasi ziren biak korrokada okaztagarriak boteaz, eta lauretarako apustua erabakirik zegoen. Zurruteroa, begiak jiraturik eta paparra lerdetan blaiturik, zazpigarren botila ardoaren estreinako tragoak seko utzi zuen burua mahaira botata ahotik bitsa zeriola. Jatunak hori ikustean barreari eman zion eta esfortzuak barrualdean egin zion asaiak atzeraka tripaz gora bota zuen seigarren kilo amaitzear zegoenean. Kontuak hauek izan ziren: jatunak sei kilo eskas jan zituen, zurruteroak zazpi sagardo eta sei botila ardo edan zituen, hala uste izan zuten behintzat, tabernariak hustutako botilak ekartzean sagardoarenak bai, zazpi, baina ardoarenak bost azaldu ziren arte. Irabazleak bekozkotu egin ziren eta galtzaileak lasaitu, eztabaidan hasi ziren matematikekin amaitu arte eta lehen baino haserreago joan ziren, apustulariak bi eguneko loaldira bizkarrean garraiatuz. Ernestok eta lagunak ordurako botila hustu, erre kara bota eta konfiantza harturik zeuden. Kanean, Santos bertsoan hasi zitzaion, Ernestok trikitilari planta hartzen zuelarik, eta mozkorrak aztoraturik zimitoriora zuzendu ziren ostantza munduan zabaltzen hasia zenean. Gorputz eguna zen, eta mutikoek gaua esna pasatzen zuten estreinako aldia. Eguerdiko prozesiorako, belarra zabaltzen hasi ziren kale guztietan zehar, etxe bakoitzekoak bere etxeak punta batetik bestera hartzen zuen luzeran, aurrez baserritarrek etxe bakoitzaren atarian utzitako belar mortzilotik eta, mutikoak konturatzerako, herriko kaleak belarrez estalirik zeuden, mendiak bakardadean aspertu eta herriko bakardade konpartituaren atzetik kaleak konkistatu balituzte bezala, kanean belarra hazi, bai,

oraindik ikusi behar ditugunak, kalekumeak eskuaretzen, bai, eta baserritarrak parrandan, bai. Herria bi zatitan banatzen zuen zubia txapeltzat hartzen zuen errekek, eta mutikoak eztabaidan hasi ziren, zubiaren goialdea luzeagoa dela, ezetz, behealdea, ez duk ikusten zenbat etxe, ez, ez, etxeak estuak izan litezkek, bazekiat zer egin, zubi erdian jarri, hik goialdeko belarra erre eta nik behealdekoa, suak erakutsiko zizuk luzera, baina bakarrik dauden neskazaharrak berotuko ditiagu, bai, berotu zituzten, bizkarra emanda jarri ziren due-lu bat egiteko moduan, baina ez beren buruarekin baizik herriko guztienekin, pospoloak piztu zituzten, metro batean hara eta hona astindu eta uste baino lehorrago zegoen belar errearen keak zimitoria bidali zituen. Mantsogatik izutu ziren suaren indarra ikusterakoan, bai zaharrek ura eta sua belaunez behera esaten zutenekoa gogoratu ere. Sua kale guztietan hedatu zen tximista baino azkarrago, eta mutikoak oihuka eta zalapartaka hasterako, majo esnaturik ziren herri guztian. Sugarra lehenengo pisuetaraino ailegatu zen, harriak belztu zituen, baita bebarruetako ateak ere, erdi lotan zeudenek eguzkia bere tokitik erori zela pentsatu zuten, leihoetan lehortzen zeuden arropak erre, ganbarak kez bete eta inguruko herrietan eliza erre zela pentsatu zuten kirats hura usnatzean eta sua gertatzen zenean ohitura zen bezala su kanpairik ez entzutean.

Sopetoan pasatu zitzairen Ernestori eta Santosi mozkorra, eta parrandak elkartu bazituen istripuak hastanduko zituen, ondo hasitakoa gaizki bukatzen den arranguraz. Ba-koitza bere etxean ostendu zen, ganbaratik hiru egunetan eta etxetik kanpora aste eta erdian atera gabe.